



Finantzetako zuzendariaren ebazpena, 2010eko urtarrilaren 26koa. Horren bitartez, garatu egin dira maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren zenbait manu garatzen dituen 2009ko apirilaren 29ko Aginduaren 27. artikuluan ezarritako irizpideak, BGAEetako aurreikuspen planen arrisku profilari, administrazio gastuei eta errentagarritasun historikoari buruzko informazioa argitaratu ahal izateko Administrazioari eman beharreko datuak eta horiek emateko modua ezarriz.

Ekonomia eta Ogasun Sailak du Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko eskumena, batez ere Finantza Zuzendaritzaren bitartez. Hain zuzen ere, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura eta zereginak finkatzen dituen urriaren 20ko 568/2009 Dekretuak zuzendaritza horri esleitzen dio Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko araudia betetzen den kontrolatzea, gainbegiratzea eta ikuskatzea, bai eta Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen dokumentazio ekonomiko-finantzarioa eta kaudimena arautu, garatu, aztertu eta gainbegiratzea ere.

Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeen jarduera jakin batzuk arautzeko den maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuak, honakoa dio 6. artikulua amaieran, Administrazioari eman beharreko informazioari dagokionez: *“Ogasun eta Herri Administrazio Sailak ezar dezanarekin bat etorriz baliteke informazioa ematea arrisku profilari buruz baita administrazioak ekarritako gastuei eta aurreikuspen planen errentagarritasun historikoari dagokienez ere”.*

Manu hori garatuz, 92/2007 Dekretuaren zenbait manu garatzen dituen Ogasun eta Herri Administrazioari sailburuaren 2009ko apirilaren 29ko Aginduaren 27. artikulua argitalpen hori egiteko baldintza orokorrak ezarri zituen. Hona hemen: *“Parametro horiei buruzko informazioa aurreikuspen planei buruzkoa izango da beti. Edonola ere, bakoitza sartuta dagoen BGAEa kasuan kasuko publizitate euskarrian sartuko da.”* *“Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sorrera berriko web orrialde batean sartuko ditu datuak, edo aldeztu aurretik existitzen den batean bestela, erabiltzaileek horietara iristea posible izan dezaten. Interneteko orrialdea ez den beste publizitate euskarri osagarri batzuk erabili ahalko dira.”* *“BGAE ezberdinen aurreikuspen planak arrisku profilaren arabera multzokatuko dira, eta arriskua plan bakoitzari, dauden aktibo mota ezberdinen artean, esleitutako aktibo banaketaren arabera zehaztuko da.”* *“Aurreikuspen planen errentagarritasun historikoa ekitaldi itxiei buruzkoa izango da beti. Aintzat hartu ahalko dira urte aldi ezberdinak, baina horien artean, halaber, azken ekitaldia sartuko da.”*

Halaber, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31ri buruzko datuak bidaltzeko epea ere ezartzen du Aginduak, eta urte bakoitzeko urtarrilaren 31 da azken eguna.

Era berean, ezarritakoaren arabera, aipatutako irizpideak Finantzetako zuzendariaren ebazpen bitartez garatu ahalko dira.

Ondorioz, aipatutako araudian aurreikusitako ondoreetarako, egokitzen jo da, ebazpen honetan, aipatutako irizpideak garatzea, eskumen horiek dituzten eragileei eta EAEko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei modu ofizialean helaraziko zaizkien argibide hauen bitartez:

Lehenengoa: Kudeaketaren gardentasuna hobetu eta planen arteko konparatiba erraztearren, erantsitako koadroan bildutako datuak bidali beharko dizkiote BGAEek Finantza Zuzendaritzari, **ebazpen honekin batera erantsitako Excel formatuan**, kudeatutako aurreikuspen plan guztiei dagokienez eta jarraian azaldu den kategorian banaketa eginez:

1. **Epe laburrerako errenta finkoa:** Kategorian honetako planek ez dituzte errenta aldakorreko aktiboak barne hartuko euren eskurako zorroan, ezta eratorririk ere bere azpikoa errenta finkokoa ez denean. Zorroaren batezbesteko iraupena bi urte edo gutxiagokoa izango da.
2. **Epe luzerako errenta finkoa:** Kategorian honetan eskurako zorroan errenta aldakorreko aktiboak eta azpikoa errenta finkokoa ez duten eratorriak barne hartzen ez dituzten aurreikuspen planak sartuko dira. Zorroaren batezbesteko iraupena bi urte baino gehiagokoa izango da.
3. **Errenta finko mistoa:** Kategorian honetako aurreikuspen planek euren zorroaren % 30 baino gutxiago inbertituko dute errenta aldakorreko aktiboetan.
4. **Errenta aldakor mistoa:** Kategorian honetan sartuko dira euren zorroaren % 30 eta % 75 bitartean errenta aldakorreko aktiboetan inbertitzen dituzten planak.
5. **Errenta aldakorra:** Kategorian honetan sartuko dira euren zorroaren gutxienez % 75 errenta aldakorreko aktiboetan inbertituta duten planak.
6. **Bermatuak:** Hirugarren batek emandako etekin zehatz baten kanpoko bermea duten aurreikuspen planak dira.
7. **Bestelakoak:** Aurreko sei kategorietan kokatu ez daitezkeen planak.

Bigarrena: Finantza Zuzendaritzak, Euskadiko BGAEek aipatutako alorretan dituzten aurreikuspen plan guztiei buruzko informazioa (hau da, arrisku profila, administrazio gatuak eta errentagarritasun historikoa) herritarrei helarazteko asmoz, erreferentziako aginduan aurreikusitakoaren arabera argitaratuko ditu datu horiek.

Arestian aipatutako ondorioetarako, informazio hori helbide elektronikoko honetara bidali beharko da: v-martinez@ej-gv.es

Apirilaren 29ko Aginduan ezarritakoa eragotzi gabe, egungo data dela eta, dokumentazioaren bidalketa datorren 2010eko otsailaren 15a arte onartuko da. Bakarrik jakinarazi beharko dira azkenengo hiru ekitaldiei dagozkien errentagarritasunak, edo, hiru ekitaldi baino gutxiago balira, Plana dagoenetik itxitako ekitaldiei dagozkienak.

Hirugarrena: Jakinarazpenen ondorioetarako, ebazpen hau eta bertako argibideak Ekonomia eta Ogasun Saileko Finantza Zuzendaritzaren web gunean ipiniko dira eta, era berean, interesa duten EAeko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde guztiei jakinaraziko zaizkie, posta elektronikoaren bitartez.

Laugarrena: Ebazpen honek sinatzen denetik aurrera izango ditu ondoreak baina, hala ere, jakinarazpenak egin beharko dira, aurreko atalean aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 26a

Izpta: Miguel Bengoechea Romero

FINANTZETAKO ZUZENDARIA

1. ERANSKINA. B.G.A.E.AREN AURREIKUSPEN PLAN GUZTIEN URTEKO ERRENTAGARRITASUN HISTORIKOAK, ADMINISTRAZIO GASTUAK ETA ARRISKU PROFILA AZALTZEN DITUEN KOADROA, URTARRILAREN 31 BAINO LEHEN BIDALI BEHAR ZAIONA FINANTZA ZUZENDARITZARI.

(1) Planaren izena	(2) Bazkide sustatzailea	(3) Planaren mota	(4) Errentagarritasuna		(7) Administrazio gastuak	(8) Arrisku profila
			(5) Urte a	(6) Datua		

Koadro hori honako argibide hauen arabera beteko da:

(1) Planaren izena: BGAEan dauden aurreikuspen plan guztien izena.

(2) Bazkide sustatzailea: Aurreikuspen plana sartuta dagoen BGAEaren bazkide sustatzailearen izena.

Enplegu modalitateko planetan bakarrik bete beharko da koadroa, plan bakoitzeko, BGAEaren bazkide sustatzailea finantza erakundea denean eta planaren bazkide babeslea ez denean bazkide sustatzaile hori.

(3) Planaren mota: Banaketa honen arabera bete beharko da: 1- Epe laburrerako errenta finkoa; 2- Epe luzerako errenta finkoa; 3- Errenta finko mistoa; 4- Errenta aldakor mistoa; 5- Errenta aldakorra; 6- Bermatuak.

(4) Errentagarritasuna: Eskuratutako errentagarritasuna kalkulatzeko, 92/2007 Dekretuaren 13. artikuluko 5. atalean xedatutakoari jarraituko zaio.

(5) Urtea: Azken hiru ekitaldietako urteak adieraziko dira edo, hiru urte baino gutxiago izatekotan, plana dagoenetik itxitako ekitaldiak.

(6) Datua: Urteko datua azalduko da, bi dezimalekin.

(7) Administrazio gastuak: Azalduko den ehunekoa bat etorri beharko da plan bakoitzaren araudian ezarritakoarekin.

(8) Arrisku profila: Maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 4. artikuluan azaldutakoaren arabera bete beharko da (handia, ertaina edo txikia).